



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Ikaztegietan, 2026ko martxoaren 2an

BILDURIK:

Alde batetik: Ikaztegieta Udalaren izenean ALBA GARMENDIA CASTAÑOS, Ikaztegieta Udaleko Alkate-Lehendakaria.

Bestetik: XABAT IBARGUREN LAZKANO jauna, HERRIGINTZA KULTUR ETA JOLAS ELKARTEAREN Lehendakaria, adinez nagusia eta Ikaztegieta Udaleko bizilaguna, San Lorentzo 32an helbideratua eta 72461827-M N.A.N. duena.

Bi aldeek erabaki dute adieraztea hurrengo

AURREKARIAK:

LEHENA: Ikaztegieta Udala, lehen San Lorentzo 7 zenbakian kokatzen den eraikinaren jabea da. Eraikin honek behe solairua, lehen solairua eta teilatupe solairua ditu. Lehen solairuaren zati batek irteera independentea du eta Herrigintza Kultur Elkarteak erabiltzen du alogera erregimenean.

Udalarena da baita, Udaletxe zaharraren atzeko etxebizitzaren azpian, hain zuzen ere San Lorentzo 59 zenbakian kokatzen den etxebizitzaren azpiko lokala.

BIGARRENA: 1993ko urtarrilaren 1 geroztik, Udalak Herrigintza Elkarteari alokatu dio lehen solairuan irteera independentea duen eta elkarte erabilera duen espazioa.

2026ko martxoaren 2an Ikaztegieta Udalaren eta Herrigintza Kultur Elkartearen arteko alogera kontratua amaitzen da.



- a) Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legearen 5. artikulua udal erakundeei erabateko gaitasun juridikoa onartzen die, besteak beste, erosteko, edukitzeko, saltzeko, kontratatzeko, alokatzeko.....
- b) Administrazioaren ondare ondasunak ustiatzeko modurik arruntena alokairua da, Jurisdikzio zibilari eta zuzenbide pribatuari atxikitutakoa. Hala ere, adierazi behar da alokairu kontratu zibila formalizatu aurretik maizterra hautatzeko Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) agintzen dituen tramite administratiboak jarraitu beharko direla.
- c) 33/2003 Estatuko ondasunen legearen 107.1 artikulua arabera (oinarrizko legedia), lehiaketa da maizterra hautatzeko sistema arrunta, nahiz eta esleipen zuzena ere onartzen du ondorengo kasuetan: alokatzen den ondasuna berezia denean, alokatzeko eskaintza mugatua denean, ustekabeko gertaera baten ondorioz larrialdia sortzen denean eta eragiketaren berezitasunagatik.
- d) Esleipen zuzenaren inguruabar zehatzaileak espediente administratiboan justifikatua beharko dira.
- e) Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak alokairu kontratua onartzeko organo eskudunaren inguruan ez du ezer aipatzen. Implizituki ulertu behar da emakidentzako eskuduntza Alkatearena bada alokairuak burutzeko eskuduntza ere Alkatearena izango dela beti ere kontratuak aurrekontuko sarrera arruntaren %10ko, 6.000.000 €ko eta gehienez 4 urteko muga gainditzen ez duen bitartean. Muga horiek gaindituko balitu udalbatzaren eskuduntza baten aurrean geundeke (Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeko 21.1.ñ artikulua).



f) Hiri alokairuak hiri alokairuko legerari atxikituta daude.

KLAUSULA ZEHAZTAILEAK:

Lehena.- Kontratuaren helburua

Kontratu honen helburua, Bakarne Otegi Jauregi Alkateak, Ikaztegieta Udalaren izenean, Herrigintza Kultur eta Jolas Elkarteari, Udalaren jabetzako lokal hauek alokatzea da:

-Ikaztegieta San Lorentzo 7 zenbakian kokatzen den, irteera independentea duen eta elkarte bezala erabiltzen gunea.

-Udaletxe zaharraren atzeko etxebizitzaren azpian, hain zuzen ere San Lorentzo 59an kokatzen den etxebizitzaren azpiko lokala.

Bigarrena.- Kontratuaren iraupena

Lokal alogera kontratu honek izango duen indarraldia izango da, 2026ko martxoaren 2tik 2030ko martxoaren 2ra bitartekoa. Behin epea hau gaindituz gero, Udalak erabakiko du alogera kontratu hau berritu edo ez.

Hirugarrena.- Prezioa

Lokal alogera kontratu honen kuota urtekoa izango da, eta errentak irauten duen bitartean, bi urtez behin 5 euro igoko zaio. Kontratu hasierako kuota 335€ izango delarik.

2027. urtean 335€

2028. urtean 340€

2029. urtean 340€

2030. urtean 345



Ordainketa urte hasieran egingo da, hau da, urtarrilean zehar. Maizterrak eginbehar hau ez betetzeak ahalmena emango dio akuratzaileri kontratua alde bakarrez baliogabetzeko eta maizterrari lokala utzi arazteko.

Laugarrena.- Mantentzea eta konponketak.

Akuratzaile edo errentatzaileak lokalak ongi zaintzeko betebeharra du eta horren erabilerarako beharrezkoak diren obra eta konponketak bere kontura izango dira. Hala ere, edozein obra egin nahi izanez gero, aurrerapenez eman beharko dio horren berri Udalari eta Udalaren baimena jaso beharko du.

Bosgarrena.

Guztiz debekatua dago alokatutako lokala beste inori alokatzea Udaleko Alkatearen berariazko baimenik gabe. Debeku hori ez betetzeak harremana automatikoki baliogabetzea ekarriko du ondoriotzat.

Seigarrena.

Alokatutako lokala Elkartearen jardueretarako erabiliko da. Jabearen baimenik gabe maizterrak ezingo du erabilera aldatu.

Zazpigarrena.

Edukiaren burutzapenean sor litezkeen hutsuneei irtenbideren bat ematearren, hemen xedatu ez den zalantza oro 29/1994 Hiri Errentamenduaren Legearen arabera osatu ahal izango da, edota momentuan indarrean egongo den arautegiaren arabera. Subsidiarioki Zuzenbide pribatuko bestelako legeria izango da aplikagarria.

Aurreko klausula zehatzaileen edukia irakurri ondoren, beren interesekin bat datozela ikusten dute, eta horrenbestez horren edukia berretsi eta dokumentu bikoitza sinatzen dute izenburuan adierazitako leku



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

eta egunean.

Izptua. Xabat Ibarburen Lazkano
Herrigintza Elkarteko
Lehendakaria

Izptua. Alba Camendia Castaños
Ikaztegieta Alkatea.



